

ABIZENAK

Gorrotxategi: Zegaman etxe bi, baita Garaikoa ta bes-tea Azpikoa. “G-” gero ezarria izan ezker, “Urritxategi” litzake eta urretx asko dagon lekua da: “-tegi” tokia ta ugaritasuna da. Legazpian 1407an agertzen da.

Goienetxea: Baztan’en eta Benebarran agertu zan eta Bizkaira ta Gipuzkoara zabaldu. Goren dagoen etxea esan nai dau. Ezkiogan 1470.

Goioaga: Zeanuritik dator eta “Goio” ez da besterik “Goia” aldatua baiño eta azkenengo “-aga” toki-atzizkia. 1672n. urtean badabil.

Gebara: Naparroan agertzen da 1134n. urtean eta gero Arabara zabaldu. XII gizaldian toki askotan agiri da. “G-” gero ezarria da eta “-ebar-” irea, , orduan irea dagon lekua da.

Gerena: Mallabian dago auzo bat eta “-aran-”egaz daukola zer-ikusia diño Lopez Mendizabal’ek, beste batzuk “Geraren etxea” dala diño.

Gereka: Arrietatik asita, Mungialdean zabal dabil. Ireia dagon tokia da eta 1734’an Bilbaon agertzen da.

Gerekiz: Morga’n dago auzo bat eta andik zabaldu da. Ireia dagon lekua esan gura dau eta “-iz-” abizenaren ezaugarri da.

Gisasola: Eibar’etik zabaldu da. “G-” gero ezarria da eta -isas- ote antzeko landarea, retama. Azkenen “-ola”k ugaritasuna adierazten dau. 1664n. urtean agertzen da.

Gizaburuaga: “G-” gero ezarria. “-iza” zia edo “junco” da eta “burua” gainean dagoana. Orduña “Zien gainean dagon tokia”. 1708. urtean Elorriogan agertzen da.

Guridi: Legazpian asten da eta Gipuzkoan zabaldu. “G-” gero ezarria da eta -uri- irea. Azkenen “di” ugaritasuna. 1654’an Arrasaten.

Gurpegi: “G-” gerokoa da, “-egur” sutarako zura, “egi” tokia. Sugarria dagon tokia: “-pe-” azpian dagon. Egia: Santiagon 1702.

Gurtubai: Atxondon. “G-” gerokoa dala, “urtu” gargar antzekoa da eta “-bai” tokia. Elorriogan agertzen da: 1685.

Gurrea: Naparroatik urtena da baiña Soriara zabaldu eta an agertzen da 1134. urtean. “G-” gero ezarria da eta “-urre-” urretxea, eta “-aga” toki-atzizkia.

Gurrutxaga: Zumarraga’n dagoz etxe bi eta andik Gipuzkoarik geienara zabaldu da. Gero Indietara. Gurutzeaga dagon lekua esan nai dau. Beste batzuk “urretxa” dala diño jatorria. Aurretik “G-” proteica ipiñi eta “-aga” toki-atzizkia.

Haro: Bizkaiko jaunaren avisen onek badauko zer-ikusia Errioxako Aro’gaz, XII gizaldian. Garo irea da eta ortik dator abizena. Navas de Tolosan 1212 urtean agiri da.

Yandiola: Gueñesen eta Okendon agertzen da 1668 urtean. “Y-” geroago ezarria da eta “-andi” bedarlekua, “-ola”k atzizkia danean ugaritasuna daga.

Yartza: Lekeition sortua da baiña Gipuzkoara zabaldu da geiago. “Iar” erderazko “arce” da eta “-tza-” asko dagon tokirako atzizkia. Urretxun agiri da 1322. urtean.

Ibabe: Aramaionakoa. Izan leiteke ibarraren be-aldekoa edo ibaiaren be-aldekoa. Aramaionan 1750.

Ibaibarriaga: Markiñan 1772’an. “Ibai-” errekea, “-barri-” tokia eta “-aga” toki-atzizkia. “Ibaiaren ondoan dagon tokia”.

Ibarbengoetxea: Gamiz’en dago etxea eta “Ibarreña berengo dagon etxea” esan nai dau. Balladoliden 1815.

Ibargarai: Arrazolan dago. “Ibarraren goialdean dagon etxea” esan nai dau. Bilbaon 1728.

Olazar’tar Martin’ek